

**auzo auzo •**

**altza**

**a**urtengo udan, Al-  
tzan, Lau Haizetan  
zehazki, Eusko Jaurlari-  
tzako Kultura Sailak anto-  
latzen dituen auzolande-  
gietako bat egingo da. 22-  
26 urte bitarteko gazteei  
zuzendutako auzolandegi  
hauen helburua ingurugi-  
roa berreskuratzea da.

San Marcos, Txorito-  
kieta eta Ametzagaina  
karlista garaiko gotorle-  
kuak aztertuko dituzte eta  
Lau Haizeta inguruan  
hainbat bidexka ekologiko  
eraikiko dituzte. Honekin  
batipat, sorleku desberdi-  
neko gazteen arteko elkar-  
bizitza indartu nahi da.

**San Jose Langilea  
parrokiak** 25 urte be-  
teko ditu datorren maiat-  
zaren 1ean. Ostiralean  
Itxaropena Otxoteak kont-  
zertua emango du iluntz-  
ko 20.00etan parrokiaren  
bertan eta astelehenean,  
meza nagusia eta bazkarria  
ospatuko dira.



**Nazioarteko  
auzolandegia**  
izango da hau eta  
20 plaza izango  
ditu. Uztailaren  
1etik 30era egin-  
go dira bi talde-  
tan banaturik.  
Lanaren bitartez  
gazteek arrazake-  
riaren inguruko  
kezkak jorratu  
ahal izango dituz-  
te, batipat, ijito,  
judu eta emigran-  
teez arituko  
direlarik.

**herrera**

## Bizikletak prest

**ad**anik martxan dago  
Euskal-Giroa, kultur,  
kiròl eta solaserako  
elkartek antolatutako  
zikloturismo taldearen egu-  
tegia. Udazkena bitartean,  
igandero herrerratar txirrin-

dulari talde hau Euskal  
Herrian barrera izango  
dugu txirindaren gainean,  
honela, besteak beste, aipa  
daiteke apirilaren 30erako  
antolatu den irteera. Bidaia  
Getariako kaican bukatuko

da 75 Km ibili ondoren.  
Herrerratik 8.30etan atera-  
ko dira eta kontrol ordute-  
giak goizko 9etan eta  
11etan pasako dituzte.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

# BIDEBIETA institutua

(HSAOL Batxilergo Ikastetxe Esperimentala)

- BBB eta UBI
- HSAOL Batxilergo modalitate hauetan:  
Natur eta osasun zientziak  
Giza eta gizarte zientziak
- A, B eta D ereduak
- Gaueko UBI
- Arratsaldero irekita
- BARNE MERKATARITZA-ko 2. mailako modulua:  
Bi urteko prestaketa, dendetan praktikak eginaz  
BBB, IEE eta LH-ko 1. eta 2. ikasturteak gainduta eduki behar

INSKRIPZIO EPEA: MAIATZAREN 4TIK 18RA

Serapio Mujika z/g • Tfnoa.: 390240

# «Intxaurrondo bizi-bizirik dago»

Eusebio Areso duela 45 urte Atotxan jaio bazen ere, 7 urtekin Intxaurrondora etorri zen familiarekin bizitzera. Bertan hazi eta bizi izan da beraz. Azken 16 urte hauetan

Kutxak Intxaurrondon duen bulegoko zuzendaria da. Etxean jasotzen du Irutxulo eta berak dioenez «gure etxeko parte bat da».


Zuzendariaren bulegoko lehiotik Intxaurrondo baserria ikusten da.

Baserri honen izena eman zitzaion auzoari.

Eusebioren oroi-menean bizirik dirau ordukoak.

**Nola gogoratzen duzu auzoa?**

Lehen, Intxaurrondo, auzogune txikia zen, baserri eta belardiz inguratua. Orain, berriz, auzoko alde berri-berriaren kale izen asko lehengo baserri izenak dira: Lizardi, Baso



Sortzez Atotxakoa den arren, txikitatik bizi da Eusebio Areso Intxaurrondon eta bertan darrai lanean.

Txiki, Argel, Sagasti Eder...Oso polita eta ederra zen. Izadi miresgarria.

Noiz hasi zen aldeketa? Zubiaurre pasealekutik


gora egindako eraikuntzeekin hazkunde handia eman zen. Baina, batez ere, bariantea egin zenetik aurrera gauzak asko aldatu ziren. Baserriak bota egin ziren eta baserriak asko Bidebietako dorreetara joan ziren bizitzera. Orduan ezagutu zuen auzoak bere bigarren aldaketa nabarmena, gaur egun Intxaurrondo Berria deitzen dena.

**Zein harremana du Kutxak auzoarekin?**

Harremana oso estua da. Eta ez da bakarrik ohizko zerbitzuak eskaintzen direlako. Bereziki auzo honetan Kutxak izan ditu eta badu konpromezu berezirik. Don Bosco aldea, bere kolegio eta parrokia Kutxak finantziatutakoak izan ziren. Gainera, momentu honetan Kutxa finantziatzen ari da Hego Intxaurrondoko etxebizitzaren %90a.

**Zein egoera ikusten duzu auzoko familian?**

Hemengo jendea langile jendea da. Ez dute errenta alturik. Hemen mugimendu handia dago. Bizi bizirik dago auzoa. Gurekiko konfidantza dutela uste dut eta gure aldetik jakin badakigu zenbait kasutan familian arazo latzak ere badirela (langabezia, presoak, sida...).



**KUTXAREN HIPOTEKA**

**ETXEBIZITZA EROSTEKO MODURIK ERRAZENA**



**kutxa**

gipuzkoa donostia kutxa  
caja gipuzkoa san sebastián